



## 'HAUR KABARETA' ANTZEZLANA GUREAN

Gaurkoan 17:00etatik aurrera izango da abestiaz, dantzak, txotxongiloaz, antzerkiak,... gozatzeko aukera >4

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2008-03-15**

VI. URTEA 1.387. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**FELIX GARRIDO** HERNIALDE JATETXEKO SUKALDARIA

## «Oso harro nago sari hau lortu dudalako, alabari eskaintzen diot»

**TOLOSA** Euskadiko Sukaldari Gazte Onenaren saria lortu zuen herenegun Sukal-Leku fundazioan eginiko lehiaketan

**HITZORDUA** Apirilaren 15-16an Madrilen izango den Espainiako Txapelketan Euskadi ordezkatzeko du 3



Makrobiotika sukaldaritzari ikastaroa emango du Artachok; «jendea gero eta gehiago kezkatzen da elikaduraz», dio. NEREA URBIZU

## ZEREALAK OINARRI, TOKIAN TOKIKOA, GARAIAN GARAIKOA

**TOLOSALDEA** Aste Santutik aurrera makrobiotika sukaldaritzari buruzko ikastaroa emango du Lourdes Artachok Asvinenean; «jendeak gero eta interes handiagoa du» dio irakasleak 5

**Elizondoko finalean erabakiko da 2008ko bertsolaririk onena, gaur**

**LEITZA** Miel Mari Elozegi 'Luze' leitzarria ariko da zortzi finalisten artean Nafarroako Bertsolari Txapelketan 7

**Xabat Urkola piano jotzaileak bigarren aipamena jaso du Donostian**

**ANOETA** Hamabi urteko anoetarra Nazioarteko Donostia Hiria Piano Lehiaketan aritu da 4

**Elgezabal eta Mendizabal bikoteak irabazi du I. DV Txapelketa**

**TOLOSALDEA** 30-24ko emaitzarekin irabazi zuten paleta gomako partida Urkizu eta Serreren aurka 2

# Elgezabal eta Mendizabal garaile I. DV Txapelketan



Itaso Urkizu eta Maider Mendizabal eskualdeko paleta jokariak izan ziren aurrez aurre. HITZA

**Paleta goma** » 30-24ko emaitzarekin irabazi zieten Beotibar frontoian jokatuako partidari, Urkizu eta Serre pilotari.

## ERREDAKZIOA

Maika Elgezabalek eta Maider Mendizabalek irabazi dute Lehen Diario Vascoren paleta goma txapelketa. 30-24ko emaitzarekin irabazi zieten Itxaso Urkizu eta Amaia Serreri. Beotibar pilotalekuan jokatu zuten norgehiagokan jende ugari hurbildu zen pilotariak animatzera.

Jardunaldiaren hasieran, hiru

eta laugarren postuak jokatu ziren. Berta, Agirre eta Ruiz de Larramendi, Larrion eta Fernandez aurka aritu ziren. Bigarren hauek gailendu ziren 15 eta 30eko emaitzarekin.

Txapelketa bikaina egin zuten Elgezabal eta Mendizabalek, bost partidetatik bostak irabazi zituzten. Finalen ere ez ziren gutxiago izan, Anoetako pilotariak «ahal zuten guztia erakutsi ez bazuen ere» Urkizu eta Serreri 30-24ko emaitzarekin irabaztea lortu zuten. Mendizabalek ohikoa baino pilota gehiago galdu zituen, denek ere hamahiru. Elgezabal aldiz, finalerdietan baino hobeto aritu zen.

Final hau, data berezian jokatu zen, Emakumaren Egunaren os-

pakizunen baitan hain zuzen ere. Hala, inork baino hobeto erakutsi zuten, emakumeek ere ederki dakitela pelotan jokatzeko.

49 minutu iraun zuen partida honetan bikain aritu ziren lau paleta gomako jokariak. Amaia Serreri dagokionean, orain arte trinketeen jokatu izan du eta hori nabari da. Hernanin jokatuako finalerdietan hobeto aritu zen, baita bere bikote den Itxaso Urkizu ere. Honek tantoak bukatzeko garaian ez zuen behar bezala asmatu. Lehendabiziko tantoa 17-13 zihozela egin zuen, pilota txokoan utzi ondoren. Berastegiarrak eta Donazaharrekoak osatutako bikoteak bere aukerak izan bazituen ere, ez zuten 30 tantotara iristea lortu.

## Gazte Eguna ospatuko dute gaur; egun guztian zehar izango da jaia

### E. EZEIZA

Tolosako Gazte Mugimendua antolatuta Gazte Eguna ospatuko dute gaur, egunean zehar. Goizean goiz hasiko dira ekitaldiak, eta goizaldera amaituko dute jaiarekin.

Hasteko, 09:30ean bilduko dira, Plaza Berrian. Hemendik abiatuta, mendi martxa egingo dute Uzturrera. Ondoren 13:00ak aldera, Manifestazioa egingo dute Triangulo plazatik abiatuta, «Etorkizuna independentzia» lelopean. Jarrera, ekitaldi politikoa egingo dute.

13:30ean bazkaria izango da Abastosen. Hara joa eko tiketak salgai daude Tolosako Denak, Raku eta Orbel tabernetan. Bazkal ostean, mus txapelketa egingo dute. Arratsaldeko ekitaldiei jarraipena emateko, musika pixka bat izango da. 17:30ean hasiko dira Jipoi taldearen kontzertuarekin. Festari jarraipena emateko, 20:30ean kalejiran abiatuko dira. 21:30ean, afaltzeko zahagi-ardoa izango da nahi dutenentzat. Festak gero ere jarraipena izango du. Honetarako, Intxurre taberna irekita izango da.

## Aramendi eta Ijurkoren ongietorria debekatu du Lakuak

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi euskal presoak hilaren 22an beteko dute ezarritako espetzeko zigorra. Hori dela eta, herritarrek omenaldia prestatuta zuten egun horretarako.

Baina Lakuako barne sailak atzo jakitera eman zuenez, ekitaldia debekatu egin du. Honetarako «erakunde armatua edo bertako partaideak goraiatzeara» leporatu dute.

## Laburrak

### Gipuzkoako Batelen Ligako saioak asteburu honetan

**TOLOSA** » Gipuzkoako Batelen Ligako beste jardunaldi batzuk jokatu dira asteburu honetan. Haur- eta Urtasoko erakundeek parte hartuko dute. Bata, gaur 17:00etan, eta bestea bihar, 11:00etan. Gaurkoak Pasai Donibane uretan izango dira, eta biharkoak berriz, Donostiako Uru-mean.

### Bandaren emanaldia izango da astelehena

**TOLOSA** » Tolosako Bandaren egitarauko ekitaldien artean, gaur, emanaldia eskainiko dute Zerkautian. Kontzertua 19:30ean hasiko da. Eskainiko dituzten kantuen artean daude: *La zarzuela* y el pasodoble, *Oregon* eta *Piratas del Caribe*. Zuzendari lanetan arliko da Luis Mari Gartzia Atetxe.

## Asteburuko kirol jardueren artean, Euskal Herriko Igeriketa txapelketa

**Kirolak** » Asteburu honetan ere, futbol, saskibalo, eskubalo eta igeriketa saioak izango dira Usabal kiroldegian.

### ERREDAKZIOA

Usabalgok kantxa eta zelaietan urrrera eramaten diren Kirol jardueren artean, ondorengoak izango dira asteburu honetan. Gaur goizean, kantxa nagusian, infantilen mailako bi saskibalo partida jokatu dira. Eguerdian, 12:00etatik aurrera, kadeteen txanda izango da. 18:00etatik aurrera junior mailakoak izango dira. Azkenik, bihar, 11:30ean, Junior mailako esku-balo partida izango da.

Behoko kantxan, 12:00etan kadete nesken saskibalo partida izango da. 15:00etan berriz, mahai teniseko partidak jokatu dira. Igandean, kantxa berean, 10:00etatik 12:00etara Saskibalo Teknikafizioko jardunaldiak izango dira.

Igerilekuari dagokionean, bihar goiz eta arratsaldean Euskal Herriko Txapelketa jokatu da. Futbol jardueri dagokionean berriz, 10:00etan, Tolosa CFko infatit txikiak lehiatu dira Zarautzen aurka. 12:00etan berriz, kadeteen txanda izango da. Hauek Euskalduna izango dute aurkari. 16:00etatik aurrera, Oheozko Jubenilen mailako eta Martutene- ren arteko norgehiagoka ikusi ahal izango da. Azkenik, alebinek jokatu dute 11:00etan, Hernaniren kontra.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

### Donostian dagoen enpresa batek KOMERTZIALA BEHAR DU Donostia aldean aritzeko

Erreferentzia: 08-IHK

#### Eskaerak:

- Egun erdiko kontratua.
- Soldata interesgarria, finakoak eta komisioek osatuta.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

#### Eskaerak:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali, martxoaren 18 baino lehen, [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) POSTA ELEKTRONIKORA. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.

### @ VII. Hitza Argazki Lehiaketa.

Aste Santuak gainean diren honetan HITZAk berrituko du martxan jarri du Argazki Lehiaketa. Beraz, argazki kamerak poltsatik atera eta erretratu bikainak ateratzeko garaia iritsi da beste behin ere. Gainera irabazleentzat sari bikainak izango dira. Horien artean, Bizkaiko bainuetxe batean asteburu, tratamenduak barne, Iriarte jabetxean afaria, eta HITZAko materiala. Parte hartu nahi dutenek informazio gehiago gure webgunean eskuratu ahal izango dute.

### Euskarazko Komunikazio Taldeak arduradunak behar ditu MARKETIN eta KUDEAKETA sailtarako (erref.: o8-ink)

#### Eskaerak:

- Marketin eta Enpresa Kudeaketa arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orriaren eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balioidea den euskarra maila.

#### Kontuan hartuko da:

- Marketin eta kudeaketa lanetan izandako eskarmentua.
- Talde gidaritzan esperientzia.
- Harremanetarako eta antoluntzarako gaitasuna.

#### Eskaerak:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa dutenek bidali curriculum, martxoaren 19a baino lehen, erreferentzia zehatuz, helbide honetara: [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net)

## Haur Kantari Lehiaketaren azken saioan ariko da bihar, Nahia Barriola

**Leitza** »Gayarren izango da 11:30ean; bakarlari gisa hartuko du parte leitzarrak, gaztetzoen kategorian.

**NAIARA GARZIA**

Haur Kantari Jaialdiaren azken saioa izanen da bihar Gayarren (Iruñean), 11:30ean. Bertan hartuko du parte Nahia Barriola leitzarrak.

Bi kategoriatan lehiatuko dira biharko saioan. Batetik, txikien kategorian 11 bakarlari, bikote eta taldek parte hartuko dute. Gaztetzoen kategorian, berriz, 9 bakarlarik, bikotek eta taldek hartuko dute parte. Hain zuzen ere, gaztetzoen kategorian hartuko du parte Nahia Barriolak, bakarlari gisa.

Leitzarrak *Iraganean islada* abestia (Suhar/Kerobia) abestuko du. Berarekin batera ariko diren musikariak ere Leitzakoak dira: Ander Perurena (gitarra), Gari-koitx Etxeberria (djenbe) eta Josune Gerra (teklatura).

### «Ez dago lehiakortasunik»

Juan Velez Euskal Kantuzaleen Elkarteko ordezkariak azaldu duenez, «4 saio izan dira denera; lehen txapelketa izaten zen eta kanporaketak egiten ziren. Orain jaialdia denez, saio deitzen diegu kanporaketei. 4 saioak Tuteran, Elizondan, Antsoainan eta Lekunberrin izan dira».

Hala, Velezen ustez, «egun ez dago ez dago lehiakortasunik. Saio berezi bat eginen da bihar, Gayarren. Orotara 20 partaide izanen dira, eta bakoitzari oroigarri bana banatuko zaie».

### Maila onena, Elizondan

Jon Irazoki (beratarra, musika irakaslea, txistularia), Fermin Iriarte (Zugarramurdikoa, musika irakaslea eta koru batzuen zuzendaria) eta Jaione Olazabal areoarrak osatu dute epaimahaia.

Jaione Olazabalek adierazita-koaren arabera, «maila hoberena, 4 saioetatik, Elizondan izan genuen; oso maila ona ikusi genuen, hoberena, konparaziorik gabe. Gainera, aurten nabaritu da txiki-tan oso maila ona zegoela. Leitzatik 2 abesle ziren, baina Garazi Erbiti azkenean ez da azken saiora iritsi; pena eman zidan, baina 3 epaimahaikide gara eta denen iritzia hartzen da kontuan. Nahiak oso ongi abestu zuen. Ahots oso polita dauka eta oso ongi afinatzen du».

Nahia Barriola leitzarrak helburua «larunbatean kantatu genuen bezala abestea» dela dio. «Abestia lehenagotik ezagutzen nuelako aukeratu nuen eta gustatzen zitzaidalako».

## E Elkarrizketa

**FELIX GARRIDO** »Hernialde jatetxeko sukaldaria



I. TERRADILLOS

# «Hau eta gero, Espainiakoa lortzea, Ilargira igotzea bezala litzateke»

**Tolosa** »Espainiako Txapelketan lehiatuko da apirilaren 15 eta 16an; «oso gustura dago eta oso harro sentitzen da» lortu berri duenarekin.

**IÑIGO TERRADILLOS**

Euskadiko Sukaldari Gazte Onenaren saria irabazi du Orendainen bizi den Hernialde jatetxeko Felix Garridok (Errenteria, 1973). Donostiako Sukal Leku Fundazioaren egoitzan izan zen herenegun lehiaketako finala, eta txapela, 300 euro eta kopa eskuratu zituen Garridok. Bere atzetik geratu ziren Cristian de Diego, Abel Corral eta Oscar Gonzalez.

### Zer sentitu zenuen emaitza jakitean?

Poz handia. Lehiaketa hau oso garrantzitsua da. Gainera, hemendik Madrilen, Espainiakoan, lehiatze-ko sailkatu naiz, eta han irabazte suertatzen denak, Frantziako Europa mailako lehiaketan hartuko du parte. Azken hau mundu maila-

ko handinetarikoa da. Beraz, oso harro sentitzen naiz lortu dudarekin. Sari hau nire alaba Iratiri eskaini nahi diot.

### Zenbat denbora izan duzu lehiaketan irabazte izan diren platerak prestatzeko?

Bi aste lehenago edo hasi nintzen prestaketekin. Parte-hartzaile guztiak plater berdina prestatu behar genuen: lehenengo platera Norvegiako izokina eta bigarrena arkume hanka. Gainera, platerak zortzi laguntzat egin behar ziren, eta bakoitza hiru jakirekin laguntzeko aukera zegoen. Hasieran probak egiten aritu nintzen, hau da, izokinarekin eta arkumearekin errezetak. Horretan izokina eta arkumearen giroa zein den ere kontuan hartu du. Gero aukeraketak etorri ziren, eta azken egunetan hobetzea, perfektionatzea etorri zen.

### Zein izan dira aurkeztu zenituen platerak?

Izokin xerrak bere mendrezakekin eta perla laranjekin lehenengo platera, eta bigarrena, arkume saiheskia pipekin, eta bere zukuan

egindako giltzurrun eta pinaziekin betetako hanka.

### Lehiaketa nola joan zen?

Goizean hasi ginen sukaldatzen. Bost ordu genituen dena prestatzeko. Plateraren aurkezpena egin ondoren epaimahaia baloratu zuten sukaldarion lana, baina horretaz gain, Pello Aranburu umeoro egon zen sukaldatzen aritu ginen umean begiratzen, guztia hartzen baitute kontuan: plateren aurkezpena, neurriak... Perfektua izan behar du, eta 8 pertsonentzat egin behar dela kontuan hartuta, oso zaila da.

### Nolako maila egon zen?

Handia. Gainerako sukaldariek oso ondo egin zuten, plater onekin eta dibertigarriekin.

### Ez da irabazi duzun lehendabiziko lehiaketa.

Tolosan Babarrunaren lehiaketa irabazi nuen 2005ean, eta Gasteizen ere bigarren sari bat ere irabazia dut, baina irabazi berri dudana hau da denetan garrantzitsuen.

### Madriko lehiaketa irabaztea ez da erraza izango.

Apirilaren 15 eta 16an izango da,

eta gaur izango dut parte hartzeko platerak zein izango diren aurkezteko azken eguna. Saiatuko naiz lehiaketa honetakoak hobetu eta sakontzen, baina hau irabaztea oso zaila litzateke, izan ere, autonomia erkidegoko sukaldari gazte onenek hartuko dute parte. Hori bai, irabaztea ilargira igotzea bezala izango litzateke.

### Laguntzailea ere izan zenuen lehiaketan.

Bai, bakoitzak genuen laguntzailea. Nire kasuan, Gorka Elizalde izan nuen alboan umeoro. Horretaz gain, eskertu beharra daukat Carnicas Goya eta Pescados Frescos Igartzakoak, eta batez ere, Ilargi tabernako Mirella.

### Zenbat urte daramatzazu sukaldari lanean?

17 urte. Kuriositatez hasi nintzen sukaldari; gurasoek nola sukaldatzen egoten nintzen ikusten txikitant. Gero, Arzakaren sukalde-laguntzaile bezala hasi nintzen, eta kasualitatez hasi ere, masustak banatzen nituen han denboradia zenean, eta hortik barruraino sartu nintzen.

### BERRIAK telemarketin saileko lan poltsa osatu behar du

(erref.: tlmk)

Telefono bidezko gestioak egingo dituen administrari edo komertzial bila gabiltza. Bete beharreko zereginen artean **harpidetzak lantzea, inkestak egitea eta kobrantzak bideratzea** legoke.

Soldata finkoa eta emaitzen araberako komisioa eskaintzen da, lan kontratuarekin. Esperientzia izatea ez da ezinbestekoa, baina kontuan hartuko da telemarketin arloan, telefono bidezko lanetan eta komertzial gisa aurretik aritua izatea. Hizkuntza ahalik ere kontuan hartuko da.

Interesdunek curriculuma bidali [gb@berria.info](mailto:gb@berria.info) helbidera, erreferentzia zehaztu.

### ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN ETXEBIZITZA HARRETARAKO, MONITOREAK BEHAR DITUGU ASTEBURUETAN ETA JAIEGUNETAN LAN EGITEKO TOLOSALDEKO PISUETAN.

#### Eskeintzen da:

- Hileko 700€ eta 900€ bitarteko soldata garbia eta aparteko bi soldata.
- Epe ERDIRA astean zehar diren txandetarako promozioetan sartzeko aukera.

#### Esakatzen da:

- II.LH-ko titulua izatea edo gizarite, heziketa edo osasun arloan erdiko edo goi mailako ikasketak izatea eta orain dela 4 urte gehienez atarata izatea.
- B ereduko gidabaimena.

#### Kontuan hartuko da:

- Bi hizkuntza ofizialak ezagutzea.

Interesaturik bazaude bidali lehenbailehen zure curriculuma 20.080 Donostiako 411. postakutxara.  
Kandidaturak jasotzeko azken eguna 2008/03/31a izango da



Antzezlaren une bat. HITZA

## 'Haur kabareta' antzezlana Gurean

**Villabona** » Abestia eta dantza, txotxongiloak, antzerkia ikusle goaren parte-hartzea... uztartzen dira obra horretan.



Haurrek ere parte hartzen dute. HITZA

### ERREDAKZIOA

Agerre Teatroa eta Mi Cabeza que Habla konpainiek elkarlanean sortutako *Haur Kabareta* antzezlana ikusteko aukera izango da gaurkoan Gura aretoan. Haurrei zuzendutakoa, emanaldia 17:00etan hasiko da eta 4 euro balioko ditu.

«Abestia eta dantza, txotxongiloak, antzerkia, ikusle goaren parte-hartzea... hori guztia da *Haur Kabareta* liluragarri hau», azaltzen dute egileek. Inguruan dauden gauzei musika egiteko aukeraz gozatzeko aukera ematen du. «Haurrak primeran pasatzeko modukoa», diotenez.

Emanaldian bi musikari ospetsuk eta hirugarren batek, hiru

haur bezain xalo, sortuko dute umeekin batera «orquestra pepinofoniko bat, barazki musika tresnekin, hain zuzen». Maisuek proba ezberdinak egiten dituzte, esaterako haurrak haien entseguetan parte hartzen, edo, bestela, haiengana joaten, «eta horrela ikusten dute belarri fineko diren musikalaritxiki horiek».



Xabat Urkola lehiaketan parte hartzen. HITZA

## Bigarren aipamena jaso du berriro Xabat Urkolak Donostian

**Anoeta** » Maila handia izaten den Nazioarteko Donostia Hiria Piano Lehiaketan lortu du anoetarrek saria.

### IMANOL GARCIA

Xabat Urkola 12 urteko anoetarrek bigarren aipamena lortu du Nazioarteko Donostia Hiria Piano Lehiaketan. Piano jotzaile gazteek parte hartzen dute bertan eta maila handiko lehiaketa izaten da. Iaz ere sari berdina eskuratu zuen Urkolak eta «gustura» azaldu da jasotakoarekin.

Ez zuen nahi bezala hasi emanaldia, baina hala ere bigarren aipamena jaso zuen. «Hasi eta bere-

hala gelditu egin nintzen», dio Urkolak. Blokeo txiki bat izan zuen eta berriro ekin zion emanaldiari. J.L. Dussek-en *Sonatina Op. 20* eta S. Hellerren *Studio Op. 46* obrak jo zituen.

### Ikasteko aukera

39 parte-hartzaile lehiatu ziren Urkolarekin batera, hau da, 13 urte artekoen artean, eta bera izan zen eskualdeko bakarra. Loatzo musika eskolan ikasten du pianoa.

Miren Mujika piano irakasleak azaltzen duenez, Donostiako lehiaketan parte hartzeko «maila behar da eta disiplina bat ere. Horrelako lehiaketa batek balio du ikusteko beste maila bat, jotezko zer estilo dauden... Ikasi egiten da ere».

## Ekitaldi ugari antolatu dituzte Onddokoek

### ERREDAKZIOA

Villabonako Onddo Gazte Asanbladak *Gazteak herria piztera* goaz izenburupean hainbat ekitaldi antolatu ditu gaurko. 09:00etan aterako dira herriko plazatik mendimartxa egiteko. Ondoren bazkaria

egino dute, 14:00ak aldera, herriko plazan ere. Ondoren, gazte jokoak egingo dituzte. Arratsalderako trikipoteo antolatu dute. 18:00etan hasiko dira, plazatik abiatuta. 19:00etan kontzertua izango dute, herriko plazan ere.

## Labaka, Maiz eta Erasun hirukotea Gipuzkoako finalean ariko da gaur

### ERREDAKZIOA

Villabonako Behar-Zana pilota eskolako Eneko Maiz, Jon Erasun eta Peru Labaka hirukotea Gipuzkoako eskolarteko finalera iritsi da alebin mailan. Gaur izango dute partida, Ibarra kiroldegian eta 16:00etan. Tolosaldeko txapelketa irabazi ondoren, aurreko larunbatean 5-3 irabazi zioten Lasartereko eskolari.

Bestalde, joan den larunbatean ere Arruti-Arruabarrena bikoteak Irurako trinketean Gipuzkoako lehen mailako finala jokatu zuen Usurbilgo Huizi-Landa bikotearekin aurka. 40-28 emaitzaz galdu zuten arren egindako txapelketa-rekin gustura geratu dira.

Horrez gain, Lizaso-Pebet bikote seniorrek bihar Aginagan, 11:00etan, Santxex-Linzoain nafarren aurka jokatu dute. Beste taldeek ere kanpoan izango dituzte partidak: Ordozgoiti-Inza jubeniak Urnietan, gaur 15:30ean, eta Karrera-Bereziartu kadeteek Azkoitia jokatu dute.

## Laburrak

### Euskal Herriko Mus Txapelketaren partidak

**ADUNA** » Iparra-Hegoak antolatutako Euskal Herriko IV. Mus Txapelketaren kanporaketa jokatu dute bihar eta etzi Adunan. Bazkalean izango dira partidak eta herriko bikote bakarra sailkatuko da hurrengo kanporaketarako.

### Pertsona bat zauritu da kotxe-istripuan

**IRURA** » Pertsona bat zauritu zen atzo kotxe-istripuan. Irura parean, N-1ean izan zen ezbeharrak. Zauritua Donostiako Ospitalera eramane zuten. 15:00ak aldera gertatu zen istripua eta bertan hiru kotxeek talka egin zuten. Istripuaren ondorioz, 8 kilometrotako ilarak izan ziren Donostiarako noranzkoan.



# PILOTA PARTIDUAK

aspepelota.com

**Martxoak 17 • Astelehena**  
**16:30**

**Uriarte - Merino I**  
**Cabrerizo - Apeztegia**

**XALA - NALDA III**  
**MTZ. DE IRUJO - LASA III**

**Galarza V - Arruti**  
**Olazabal - Galarza VI**

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**



kontzerturako  
**2 sarrera pare**  
zozketan

Irabazleak:

- Mila Otamendi (Tolosa)
- Malentxo Arrospide (Lizartza)

Larunbata • martxoak 15  
22:00etatik 05:00 arte  
Tolosako Beotibarren



**trikujai**  
**diskofesta#02**  
3,500€ Femi y Gang

**HITZA**ren harpidedunentzat abantailak      sarrerak leihatilan izango dituzue



Makrobiotikak garaian garaikoa eta tokian tokikoa jatea gomendatzen du, eta oinarria zereala da. Asvinenea kultur elkarteak makrobiotika ikastaroak antolatu ditu Aste Santu ondoren hasteko.

## Zerealak, elikadura honen oinarri

NEREA URBIZU

**E**z omen dugu oso ondo jaten. Ez dugu behar den denbora bazkaria prestatzeko hartzen, ez bazkaltzeko, ez murtxikatzeko, ezta digestioa egiteko ere. Erosketak ongi egiteko ere ez dugu astirik...

Egia da ere, «jendea gero eta gehiago kezkatzen ari dela elikadurarekin», Lourdes Artacho makrobiotikan adituak esan bezala.

### Makrobiotika, laburrean

Makrobiotika zera da: garaiko eta lurraldeko elikagaiak erabiltzea. Ekologikoa da oso: atzerritik ekarritako elikagairen bat erabiliz

### Makrobiotika ez da egun batetik bestera ikasten, ezta unibertsitatean ere: gozagarria da.

gero, konposizioaldetik oso orekatua dago. Gauza guztien gainetik, eta makrobiotikaren oinarria zereala da. Aspalditik izan da kultura askotan zereala elikaduraren oinarria: artoa, arroza, artatxikia, garia...

«Jendea proteinek in asko kezkatzen da». Makrobiotikoek «noizean behin arraina edo lekaleak jaten ditugu proteinak izateko». Ar-



Ez da berdina makrobiotikoa hemen, edo Suitzan izatea, lekuan lekukoa jatea defendatzen baitute. HITZA

tachok argitu bezala, «lurrak behar duzuna ematen dizu, dagokiona, dagokion lekuan». Lurralde tropikal batean baldin bazaude, erraza izango da ur gehiago duten produktua aurkitzea. Beraz, ez da berdina makrobiotikoa izatea Euskal Herrian, edo Suitzan.

### Ongi murtxikatzea, ezinbestekoa

Gaur egun ez omen dugu murtxikatzen ia, irentsi baizik. Liseri aparatuekin lotutako arazoak murtxikatzearekin daude lotuta. Murtxikatzea da makrobiotikak oso kontuan hartzen duen beste puntu bat. «Listuak, murtxikatzen du-

gun garaian funtzio oso garrantzitsua dauka: hobeto liseritzeko beharrezkoa da, eta urdailak horrela lan gutxiago dauka. «Baita makrobiotika jan gabe ere, min egin diezagukeen elikagai horrek min gutxiago egingo digu ondo murtxikatuz gero».

Umeek, adibidez, ondo murtxikatzen dute: «Haurrek, badirudi denbora asko hartzen dutela jateko, edo goserik ez dutela, baina ez da horrela. Behar den denbora hartzen dute janaria behar bezala irentseko».

«Inportanteena ez da zenbat jaten den, baizik eta nola irensten den jaten dena».

### Elikagaiak hobe ezagutzeko

Ez da egun batetik bestera ikasten den zerbait. Ez da unibertsitatean ikasten, baina «oso interesgarria eta gozagarria da: sukaldaritzako ikastaro batzuk egin behar dira oinarria ikasteko». Oinarria ikasita elikagaiak ezagutzeko eta haien efektuak guregan zein den jakite horretara bideratzen zaitu. «Honela, elikagaiak konbinatzen ikasten da, eta nolabaiteko askatasuna lortzen da». Gaur egun, Euskal Herrian makrobiotika ikasteko aukera gehiago dago.

### Asvinenearen bitartez, ikastaroa martxan

Frantzian ikasi du zortzi urtez makrobiotika zentroan Lourdes Artachok, eta Tolosaldean aitzindari izan zen etorri zenean. Italian ere izan da eta ikastaroak ere egin ditu, «baina bakarrik elikaduran zentratu naiz». 9 bat urte daramatza makrobiotika sukaldaritzako klaseak ematen. Asvinenea kultur elkarteak bazkide da, eta elkarte honen bitartez, jendeak makrobiotika sukaldaritzako ikasteko aukera izango du Aste Santutik aurrera. Interesatuek, eta lehen aldiz egin probatu nahi dutenek 943 69 80 85 izango du Aste Santutik aurrera. Interesatuek, eta lehen aldiz egin probatu nahi dutenek 943 69 80 85 izango du.

## Larte-Erroizpera mendi irteera antolatu dute Altzon, bihar goizerako

ERREDAKZIOA

Larte-Erroizpera mendi irteera antolatu du Altzoko Udalak bihar-ko. 09:00etan plazatik abiatuko dira.

800 metroko altuera dauka menditxo honek eta ibilaldia ederra da oso. Bertarajoateko, Belantzaraino autoz abiatuko dira. Ibilaldia erraza dela adierazi dute, beraz, ez da prestaketa berezirik behar. Udalak jendea animatu nahi izan du, «ibilbidea erraza eta ederra baita».

## Orendaingo etxebizitza tasatuen zozketa, apirilaren 2an

ERREDAKZIOA

Orendainen egitekoak diren etxe tasatuen zozketa apirilaren 2an izango dela iragarri du Orendaingo Udalak: aurretik izena eman dutenek, beraz, jakingo dute etxea egokitu zaien ala ez.

## Iragarki laburrak

LANA

■ **Tabernaria.** Neska bat behar da tabernan asteburuetan lan egiteko. 943 65 30 93.

■ **Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lurako tabernan lan egiteko. 943 69 26 32.

■ **Etxeko lanak.** Neska euskaldun bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta adineko emakume bat zaintzeko. Alegian. 651 70 42 19.

SALGAI

■ **Hondarra.** Itsasoko hondarra salgai baratzeko lurrari nahasteko edo lorategietarako. Beharrezkoa kamioiarentzako sarrera ona edukitzea. 16 m3, 250 euro. 617 38 19 39.

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

ALOKAIRUA

■ **Garajea.** Garaje itxia Triangulonan. Interesatuek deitu: 717 00 00 05.

BESTEAK

■ **Harremanak.** 40 urteko mutila, jatorra eta langilea. Neska bat eza-gutu nahi nuke. 638 89 72 96.

## «Jendeak gero eta interes gehiago dauka»

LOURDES ARTACHO Makrobiotikako sukaldaritzako irakaslea

### Makrobiotika

Makrobiotikan aitzindarietako bat izan da Tolosaldean: duela 9 urte etorri zen.

NEREA URBIZU

Asvinenea kultur elkarteak antolatutako sukaldaritzako makrobiotikako irakaslea da, eta 10-15 laguneko taldea dauka dagoeneko Lourdes Artachok (Tolosan bizi da, 1955). Duela 21 urte ezagutu zuen makrobiotika, eta Tolosaldean duela 9 bat urte hasi zen irakasten: eskualdean lehenengoetarikoa izan zen. Asteburuetan egiten ditu eskolak: larunbatetan ikasle berriekin, eta igandean, berriz, dagoeneko zerbait dakitenekin.

### Zer ikasten du klaseetara datorenen jendeak?

Makrobiotika sukaldaritzako aplikatzeaz gain, murtxikatzeari garrantzia handia ematen diot, eta denbora hartuta bazkaltzeari ere, arazo asko ekiditeko. Gauza asko lotuta daude murtxikatzearekin. Klasean, gero elkarrekin bazkal-



N.U.

tzen dugu, menu bat prestatzen dugulako, eguneroko plater errealek, alegia. Beraz, klaseak luzatu egiten dira. Oso giro ona daukagu.

### Beraz, interesa badago?

Bai, gero eta gehiago. Gainera, hitz honek orain ez du horrenbeste beldurrik ematen. Jendeak elikadurarekiko interes gehiago jarri

beharko luke. Gehiago jakin beharko genuke zentzu honetan.

### Erraza da makrobiotikari jarraituz jatea?

Hasieran zaila egin daiteke, ohituratan oinarritzen direlako hainbat elikadura: adibidez, kafea txar xamarra da, eta kafea hartzen dutenei, adibidez, kosta egiten zaie.

### Erraza da eskualdean produktu makrobiotikoak lortzea?

Bai, Tolosaldean 4 bat denda dauka makrobiotikan espezializatuta. Tolosako azokan ere postu batzuetan janari ekologikoa saltzen dute. Bai, lortzea erraz xamarra da, duela urte batzuk baino askoz errazagoa.

### Ez dugu ondo jaten?

Beti nire ikuspuntutik hitz eginda, ez. Gaur egun gaixotasun asko dago, alergia asko... Eta hau ez da naturala. Elikaduran ikusten dut akats larriena dagoela. Elikaduran desoreka ematen delako iruditzen zait.

### DI DA BATEAN


■ **Edari bat.** Te bancha, ez dauka teinarik.

■ **Postre bat.** Sagar konpota.

■ **Makrobiotikoa ez den zer botatzen duzu faltan?** Patata tortilla.

■ **Menu dotore bat.** Arrozezko krotetak, barazki erregosiak, txigorak eta tenporak.

■ **Klaseak pixka bat dakitenei edo hasiberriei?** Denei. Oso ondo pasatzen dugu.



Lizartzatik irten eta amaituko da Insalus Saria. Tartean Altzo eta Leaburuko mendateak igo beharko dituzte. HITZA

## Lizartzako XX. Txirrindulari Probak puntako txirrindulariak bilduko ditu

**Kirola** » Afizionatu mailako 150 txirrindulari inguruk, 107 kilometroko ibilbidea egingo dute 15:30ean irtenda.

### ASIER IMAZ

Otsabio KEk antolatuta Lizartzako XX. Txirrindulari Proba edo Insalus Saria lehiatuko da gaur eskualdeko errepideetan barrena 15:30etik aurrera. Afizionatu mailako 150 txirrindulari inguruk 107 kilometroko ibilbidea egin beharko dute eta tartean Altzo eta Lea-

buruko mendateak igo beharko dituzte.

### 107 km eta hiru itzuli

Insalus Saria urteroko ibilbidea izango du aurtengoan ere. Txirrindulariak 15:30ean irtengo dira Lizartzatik Tolosaruntz. Amartzera iristean, Alegiako errepidea hartuko dute, hemendik Ordiziaraino (Gipuzkoa) joango direlarik. Bertan buelta eman eta berriro ere Alegiara hurbilduko dira, lehen aldiz Altzoko mendateak igotzeko asmoz. Mendiko saria igaro ondoren, Lizartzara joango dira.

Bigarren itzulian berriro ere

Alegiara joango dira, Ordiziaraino joan beharrean ordea, Altzo igoko dute bigarren aldiz, berriz ere Lizartzara itzultzeko.

Azken itzulian Tolosatik Leaburuko mendatera joango dira. Ondoren Tolosa, Alegia eta Altzo pasako dituzte, Lizartzako helmugaraino iritsi aurretik.

### «Lagun asko lanean»

Antolatzaile lanetan lagun asko ibiliko direla aipatu dute Otsabio KEren kideek, ibilbide motza izan arren azken urteetan lan gehiago eskatzen duelako; bidegurutze, biribilgune eta koskak medio.



Belabietan gimnastika emanaldi bat, artxiboko irudi batean. HITZA

## Ehun gimnastatik gora Belabietan iragan asteburuan

**Ibarra** » Etxeko hiru gimnastak emaitza onak lortu zituzten, Gipuzkoako Txapelketarako sailkapena lortu zutelarik.

### A. IMAZ

Iragan larunbatean Belabietan kiroldegian Gimnastika Erreimikako A mailako Eskola arteko txapelketaren 2. fase jokatu zen.

### Etxekoen emaitzak

Belabietan eskolako 3 gimnasta aritu ziren txapelketa honetan. Miren Ezeiza 4. sailkatu zen infantiletan. Kadeteetan, Garazi Egiguren lehen postuan sailkatu zen, lehen faseko postuari eutsi ziolarik. Ezusteko pozgarria Izaro Esnaolak eskaini zuen bigarren postuan sailkatzean, 1. faseko postu bat irabaziz, aurrekoan 3. egin baitzuen. Horrela bada, hirurak Gipuzko-

ko Txapelketarako sailkatzea lortu zuten.

### Goiz eta arratsalde

Goizean alebin, infantil eta kadete mailako gimnastak aritu ziren. Alebinetan 5 talde parte hartu zuten, bosna gimnastak osatutako taldeetan; banakako saioan berriz 10 gimnasta aritu ziren.

Infantil eta kadeteetan talde bana aurkeztu ziren. Banakako lehiak, infantiletan 9 lagunek parte hartu zuten eta kadeteetan hiruk bakarrik. Guztira 57 gimnasta aritu ziren goizean.

Arratsaldean jubenil eta seniorren saioak izan ziren A eta B mailatan. Jubeniletan A mailan hiru talde aurkeztu ziren eta B mailan bi. Banakakoetan eta jubenil A mailan 5 gimnasta eta B mailan 12 aurkeztu ziren. Seniorretan A mailan 4 eta B mailan 3. Guztira arratsaldean 50 gimnasta inguru aritu ziren.



## Gazteak eta helduak nor baino nor

**BERASTEGI** » Gazte Festen azken eguna gaur ospatuko dute 18:30etik aurrera. Lehenik 6 garagardo mota desberdin dastatzeko aukera egongo da frontoian, Toka Txapelketarekin batera. Ondoren, 00:00etan,

Laiotz taldearen kontzertua egongo da. Atzo berriz, gazte eta helduen arteko futbol partida jokatu zuten berastegitarrek. Ondorengo herri afarian, partiduko jokaldirik onenak eta zikinenak komentatu zituzten. A.I.

## Urteurrenak

Urteurrena  
**JUANA ANTONI GARMENDIA LOPETEGI**

Martin Arregiren alarguna  
Gure artean joan zina  
igaro da urte bete  
zure agurak gure bihotza  
astindu zuen oso fuertez  
zuk zer hutsune utzi zundun  
ez genekin ordura arte.  
Zauden lekutik zaindu gaitzazu  
ez gaitzazu utzi aparte  
oso zurea zundun sendia  
ta maite zundun iriarte.  
**Iriarteko sendia**

**BELAUZTAN**  
2008ko martxoaren  
15ean

Urteurrena  
**JULIANA KARRERA AGIRREBARRENA**

2007ko martxoaren 13an hil zen, 75 urte zituela. Eliza-koak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Bere senarra: Asintxo Karrera; seme-alabak: Lurdes eta Xabier, Joseko (T), Añes eta Joseba, Arantxa eta Jokin, Joxe eta Gema, Jaione eta Edorta, Asintxo eta Gaili. Bilobak: Oier, Xuban, Ireber, Egoitz, Maialen, Udane, Oneka eta Irati. Senideak; ezkonseideak, izabak, itobak, lehengusak eta gainontzeko ahaideak.

Haren animaren alde oitutz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaiteztele bihar igandean, goizeko 11:15ean San Bartolome parroki elizan, egingo den mezara. Aldez aurretik, mila esker.

**AMEZKETAN**  
2008ko  
martxoaren 15ean

## Meza

**ARANTXA GORROTXATEGI BEREZIARTUA**

martxoaren 10ean  
Hondarribian hil zen  
anderearen aldeko meza  
bihar, igandean, izango da  
Azpeitiko parrokiaren.

**Azpeitia, 2008ko martxoaren 15a**

## Bertsolaritza »

Nafarroako Bertsolari Txapelketako zortzi finalistak lehiatuko dira gaur Elizondoko Lur aretoan 17:00etatik aurrera eta batek txapela eskuratuko du.

### ERREDAKZIOA

Otsailaren 8an abiatu zen aurten-go Nafarroako Bertsolari Txapelketa, hilabete luzez han eta hemen aritu dira aurtengo edizioan parte hartu duten 25 bertsolariak. Bi kanporaketa, hiru finalaurreko eta, azkenik, finalaren ordua ailegatu da.

Lur aretoan jokatu da finala, gaur, 17:00etatik aurrera eta bertan Erika Lagomak, Jon Barberena, Xabier Legarretak, Julio Sotok, Miel Mari Elosegik, Xabier Terrerosek, Iñigo Olaetxeak eta Julen Zelaietak parte hartuko dute.

Final horretatik txapeldun berri bat aterako da. 8 finalistetako inork ez du orain arte Nafarroako txapela jantzi. Lehia estua izanen da, faboritorik ote dagoen galdetzen dute askok, baina ezin halakorik esan. Zortzi hautagai direla eta txapela bakarria dela, hori da egiten ahal den pronostiko bakarra.

Kinielak kiniela, gauza segurua dena da finala egun ederra izanen dela bertsozale familia handiarentzat. Saio polita izanen dela, eta gi-



Miel Mari Elosegik Luze eta Jon Barberena bertsolariak Berako finalaurrekoan, martxoaren 1an. HITZA

# 2008ko txapeldun berria aterako da Elizondoko finaletik

roa ere ezin hobea. Ohikoa denez, finala amaituta afaria izanen da Elizondoko "Kortarixar" jatetxean.

Sarrera 15 eurotan izanen da, 10 euro Bertsozale Elkarteak bazki-

deentzat eta 16 urtetik beherakoentzat, 5 euro. Aldez aurretik hartzen ahalko dira finalerako sarre-ak; Nafarroako Bertsozale Elkartera deituta (948143747 telefonoa) edo Iruñean Karririkiri Elkarteak

duen Karridendan (Xabier Karrika, 2). Afarirako txartelak ere erreserbatzen ahalko dira, Bertsozale Elkartera deituta.

Gaurko saioan, ondorengo ariketak egin beharko dituzte 8 fina-

listek: binaka, gaia emanda hiruna bertso zortziko handian; binaka, gaia emanda hiruna bertso zortziko txikian; bakarka, hasierako puntua emanda bina bertso zortziko txikian; binaka, gaia emanda hiruna bertso sei puntuko motzean; kartzelako lana: bakarka, gaia emanda bina bertso doinu eta neurri librean.

Saioa bukatu eta lehen bien artean 5 puntu edo gutxiagoko alde baldin badago, desentzatez jokatu da (binaka, gaia emanda hiruna bertso abestu beharko dituzte hamarreko txikian, eta kartzelako lana ere egin beharko dute: gaia emanda bina bertso neurri eta doinu librean).

### Epaileak eta gai-jartzaileak

Ekintza Landa, Jon Abril, Jose Etxanobe, Joxe Urroz, Nerea Ruñio eta Saioa Mitxelena izanen dira epaileak, txapelketa osoan zehar bezalaxe. Gai-jartzaile taldea, aldiz, txapelketa osoan zehar 10 pertsonen osatu dute: Aingeru Illarramendik, Alaitz Rekondok, Amaia Errastik, Fernando Amustegik, Helios del Santok, Jone Arrarasek, Manu Legarrek, Miren Bidartek, Nekane Eluk eta Rosita Anakabek.

Aurreko urteetako txapeldunegi dagokienez, 2003. urtean Manolo Arozenak irabazi zuen finala Lesakan, eta urte horretatik aurrera lehengo urtera arte Xabier Silveira Etxeberria izan da irabazlea. Nafarroako Bertsolari Txapelketako 4 txapela lortu ditu. Aurten, ordea, ez da aurkeztu.

## » FINALISTAK

- **Erika Lagoma (Lesaka, 1981).** Bortzirietako bertso eskolan hasi zen gazterik, 2006an txapelketako finalean sartzea lortu zuen eta zazpigarren egin zuen. Joan den urtean, laugarren egin zuen.
- **Jon Barberena (Elizondo, 1979).** Bertsotan bere kasa ikasia, azken urteetan bertso eskolan biltzen da beste baztandar batzuekin batera. Azken txapelketetan ohiko

- finalista bihurtu da; 2007. urtean txapeldunorden izan zen.
- **Xabier Legarreta (Arano, 1977).** Hernaniko Bertso Eskolan trebatu zen. Nafarroako Txapelketan ohiko finalista izan da eta 2000. urtean txapeldunordea izan zen. 2 urtetako atsedenaldira hartu ondoren, aurten itzuli da txapelketara.
- **Julio Soto (Gorriti, 1987).** Iruñe-

- ko Bertso Eskolan trebatua. Eskolarteko txapeldun izan zen 2003 eta 2004an. 2006an finalean sartu zen eta zortzigarren egin zuen. laz, ordea, finaletik kanpo gelditu zen.
- **Miel Mari Elosegik, 'Luze' (Leitza, 1972).** Bertsotan bere kasa ikasitakoa da, nahiz eta azken urteotan Leitza beste lagun batzuekin bertso eskolan ibiltzen

- den. laz zazpigarren egin zuen finalean.
- **Xabier Terreros (Lesaka, 1981).** Orain dela urte batzuk aritu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Hainbat urtetako atsedenaldira hartu zuen txapelketan eta aurten itzuli da. Kanporaketetatik hasita, finalera iritsi da.
- **Iñigo Olaetxea (Lesaka, 1975).** Lesakako eskolan egindako ber-

- tsolaria da, eskarmentu handikoa eta Nafarroako Txapelketako ohiko finalista. laz hirugarren gelditu zen txapelketan.
- **Julen Zelaieta (Bera, 1980).** Gazterik hasi zen bertsotan. 2005. urtean eta 2006. urtean hirugarren postua lortu zuen finalean. 2007. ean, aldiz, bostgarrena. Bertso paperetan hamaika sari irabazitakoa da.

## «Nire burua beste bertsolarien ondo xamarrean ikusiko banu ederra litzateke»

MIEL MARI ELOSEGI 'LUZE' » Bertsolaria

**Leitza »** Miel Mari Elosegik 'Luze'k 4 aldiz parte hartu du txapelketan eta bigarrenordea da Bertsolari Txapelketako finalean.

### N. GARZIA

Miel Mari Elosegik Luzerentzat (Leitza, 1972) laugarren aldia da txapelketan parte hartzen duela eta 2 finalerara iritsi da. Hori dela eta, aurten 3 kanporaketen ondo-



JOSU SANTESTEBAN

rensartu da txapelketan, Berako finalaurrekoan, hain zuzen ere, eta han finalerako txartela lortu zuen. Bertan bigarren gelditu zen 310 punturekin, Jon Barberenaren atzetik (honek 339 puntu eskuratu zituen). Berako finalaurreko honetan, gainera, Eneko Lazkozek, Jon ELizetxek, Juan Mari Lopezek eta Ander Fuentesek ere parte hartu zuten, baina lehenengo biak soilik sailkatu ziren.

**Gaurkoa lehia gogorra izanen al da zure ustez?**

Finala oso irekita dago. Ez dut uste besteen oso gaineratik dagoen bertsolaririk dagoenik. Egun ona, zorte pixka bat duenak eta asmatzen duenak jantzi dezake txapela.

**Zehelbururekin zoaz gaurko finaleara?**

Niretzat nahiko saria da finalean kantatzea. Txukun kantatu nahi nuke eta ahal bada, gozatu eta gozarazi. Nire burua beste bertsolarien ondo xamarrean ikusiko banu ederra litzateke.

**Egin beharreko lan guztietatik,**

### zeinek ematen dizu beldurrik gehien?

Puntuka larri ibiltzen naiz askotan. Ez dakizu nondik aterako den puntua, ez doinua, ez gaia eta ez errima. Puntu hori txukun bukatzea niretzat ez da erraza. Bestetik, 6 puntu motzeko ariketa egiten zait zailena. Sei puntu asko dira, oso segidan bota behar dira eta hor gauzak esatea zaila da oso.

**Ze formuletan sentitzen zara erosoan?**

Nire neurri gustukoena hamarreko txikia da, baina finalean ez dugu ariketa hori izaten. Kartzelakoa ere ez da txarra niretzako. Gaia entzun eta zure buruaren aurka iri behar duzu. Zuk eramaten duzu bertsoa nahi duzun edo ahal duzun bideetik. Hori bai, gustukoa ez den gaia erortzen bada, luze egiten da ariketa hau.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Filma

■ **Villabona.** Gurea aretoan *Lejos de ella* filma emango dute hilaren 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean. Haurrentzako *Franklin y el terro del lago* filma euskaraz hilaren 16an 17:00etan.  
■ **Leitza.** Kenneth Branagh irlandarraren *La flauta magica* filma emango dute zineman ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.  
■ **Tolosa.** Shane Meadows zuzendariaren *This is England* filma emango dute Leidor aretoan gaur 19:30ean eta bihar 22:00etan.

### Musika

■ **Villabona.** Eresargi ahots nahasitako abesbatzak kontzertua eskainiko du 19:45ean elizan.  
■ **Tolosa.** Tolosako Musika Banda kontzertua eskainiko du Zerkautsian 19:30ean: *Karibeko piratak, Tom Sawyer, Oregon, La zarzuela y el pasodoble...*  
■ **Tolosa.** Trikujai diskofesta Beotibarren 22:00etatik 05:00etara.  
■ **Tolosa.** Zea Mays eta Zein? musika taldeen emanaldia Bonberean 22:30ean.

### Deialdiak

■ **Anoeta.** 2008ko jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira. Azken eguna, apirilaren 18a.  
■ **Ibarra.** WingTsun ikastaroa apirilaren 2tik ekainaren 23ra, astelehen eta asteazkenetan 20:30ean. Izen-ematea, kiroldegian 84 eurotan

### Irteerak

■ **Tolosa.** Andorrara mendi irteera antolatuta du Aste Santurako Oargik, martxoaren 19tik 24, Coma Pedrosa (2.942 m) eta Pic Port Vell (2.655 m). Izen-ematea, elkartean.

### Deialdiak

■ **Alegia.** Patxi Tena tolosarra urtero Kubara joaten da eta bertatik, arteak ikasten dituzten ikasleek lanak ekartzen ditu: asmoa haien laguntza da, materiala utziz, beraien margolanak salduz... Ikusgai hilabete osoan zehar.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro zuzoa, 9. 943 675118.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Amaya kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.




## Ikuskizun bereziarekin amaitu dute

**AIZTONDO** • Erriobeia Institutuan eman zioten atzo Euskal Asteari amai-  
ra, eta modu berezian eman zioten gainera. Goiz guztian ekitaldi ugari  
prestatu zituzten: euskal joku eta jolasak, xake txapelketa, dantza taile-  
rrean ikasitako Patxi dantza, hamaiketakoa... Jaialdi ikusgarri batekin bu-

katu zuten, Gurea aretoan egindakoa. Bertsolaritza eta dantza eskaini zi-  
tuzten. Erriobeiko ikasleek bertso emanaldia egin zuten eta Agin Rezola  
eta Haritz Casabal bertsolari gazteen saioak ere gozatu ahal izan zuten.  
Bukaerarako, ikasleek emandako dantza saio nabarmena. I. GARCIA

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Jon Lopetegui Arrue (Tolosa).**  
Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu asko etxeko guztien partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak  
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko  
leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak